BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

4796

AGINDUA, 2012ko urriaren 17koa, Ekonomia eta Ogasuneko Sailburuarena, 2011ko apirilaren 20ko Zor Publikoaren Jaulkipenaren zenbatekoa beste hirurogeita bederatzi milioi (69.000.000) eurorekin handitzeko dena.

Martxoaren 27ko 42/2012 Dekretuak, Euskadiko Zor Publikoaren jaulkipen bat edo hainbat egiteko edo zorpetze-eragiketak hitzartzeko baimena ematen du, horiek prestatzeko modua edozein dela ere, eta gehienez 1.207.796.030 euroko baliokidea izango den zenbatekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legeak, 10. artikuluko 1. paragrafoan, Gobernu Kontseiluari emandako baimenaren arabera.

Arestiko Dekretuaren Xedapen gehigarriak ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 30. artikuluko 3. paragrafoan agindutakoren arabera, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari dagokiola, balore gisako zor publikoa jaulkiz gero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko agindu bidez, dekretu honetan onetsitako zorpetze-eragiketak egiteko tresna eta modalitate zehatzak zehaztea, bai eta finantza-baldintzak eta, orobat, dekretu honetan eragiketei buruz aipatu ez diren gainerako ezaugarriak zehaztea ere, betiere dekretuaren aurreikuspenen barruan.

2011ko apirilaren 20ko Zor Publikoaren jaulkipena handitu egingo dela erabaki da, merkatuaren baldintzak aprobetxatzearren eta, halaber, etorkizuneko kudeaketa-kostuak erraztearren, zenbatekoak aurretiaz zeuden zor-erreferentzietan taldekatzearen bitartez.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Beste hirurogei eta bederatzi milioi (69.000.000) euro emango dira 2011ko apirilaren 20ko Zor Publikoa jaulkitzeko zenbatekorako. Zor publiko hori Euskadik 82.000.000 euroko zor publikoaren jaulkipena egiteko eta horren zenbait ezaugarri ezartzeko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2011ko apirilaren 18ko Aginduaren bitartez baimendu zen.

2. artikulua.– Honako ezaugarri hauek izango ditu handitze horrek:

a) Zenbateko nominala: 69.000.000 euro.

b) Jaulkitze-prozedura: kokapen pribatua.

c) Ordainketa-data: 2012ko urriaren 30a.

d) Ordainketa-prezioa: balio nominalaren % 100,6478904.

e) Interesak eta amortizazio-data: Euskadik laurogeita bi milioi euroko zor publikoaren jaulkipena egiteko eta horren zenbait ezaugarri ezartzeko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2011ko apirilaren 18ko Aginduan ezarritakoak.

Handitze honetako bonuek apirilaren 18ko aipatutako aginduan jaulkitako bonuen eskubide berberak izango dituzte.

f) Baloreen adierazpidea: kontuan eginiko oharrak.

3. artikulua.– Harpidetza.

Jaulki beharreko jaulkipen-balioen harpidetza jaulkipena egiteko mandatua duen erakundearen edo erakundeen bitartez bideratuko du Ekonomia eta Ogasun Sailak. Erakunde horiek horretarako gaituta daude, baloreen merkatuaren indarreko araudiaren arabera.

4. artikulua.– Gaikuntza.

Finantzetako zuzendaria baimendu da zorpetze-eragiketa hau burutu ahal izateko beharrezkoak diren kontratuak eta gainerako eranskinak eta dokumentu osagarriak sinatzeko.

5. artikulua.– Harpidetzaren, interesen eta jaulkipenaren amortizazioaren ordainketa Bilboko Burtsako Elkarte Kudeatzailearen Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuaren bidez egingo da, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 17a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.